

Proiektuaren deskribapena

Gu, Maria, Andoni, Mahmud eta Irati gara, Health W produktuaren saltzaileak, Health enpresaren nagusiak. Pultsera hau egitea erabaki dugu guretzako pertsonen ongizatea ezinbestekoa delako. Pultsera hau, nagusiki, helduentzat edota osasun arazo kronikoak dituztenentzat zuzenduta dago, haien gaixotasunen kontrol bat eraman dezaten.

Gure produktuaren izena Health W (wristband) da, eta honen esanahia *osasunerako eskumuturrekoa* da.

Eskumuturreko honen helburua pertsonen osasunaren inguruko aldagaiak (tenperatura, bihotz taupadak eta tentsioa) neurtzea da, erabiltzaileek momentuoro nola dauden jakin dezaten. Horrekin batera, pultserak bezeroak nahi duen osasun informazio guztia jasotzeko erabil daiteke.

Gure pultsera hainbat lekutan erosi ahalko da, esaterako, farmazietan eta gure web orrian; <https://hernandezandoni.wixsite.com/healthwristband>.